

hiruka

Neguko berezia • 143. zenbakia

2018ko abenduaren 13a

A person is holding a black lantern with a warm, glowing light inside. The lantern has decorative cutouts on its top and bottom. In the background, there are blurred figures of people, including a woman in a red dress and a man with a beard.

Hator gure altzora

Gabonetan, zure lotura guztiak Getxon daude...

Zure familia, zure kuadrilla...
eta konfiantzako
1.200 saltoki baino gehiago,
giro oparoarekin!

Hemen bila gaituzu
Búscanos aquí
www.getxo.eus



En Navidad, todos tus lazos están en Getxo...

Tu familia, tu cuadrilla... y más
de **1.200 establecimientos**
de confianza, con el mejor
ambiente!



Getxon
daukazu!



Getxo
bizi ezazu

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Idoia Lorente, Erika Martinez

Erredakzio-burua: Unai Brea

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte,
Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Oskar Gutierrez

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa: Ziortza Merino

Kolaboratzaileak: Asier Barruetabeña,
Alazne Palacios, Izaskun Rodriguez,
Kerman Santiago

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 8.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

NORK EROATEN DITU OPARIAK ZURE ETXERA?	4
EGUN BERRIAK ETA GABA ONAK Oier Araolaza Arrieta	5
MUNDUKATUAK Zelan ospatzen dituzte Gabonak beste herrialde batzuetan?	6-7
PUBLIERREPORTAJEA	8
OLENTZERORI ETA MARI DOMINGIRI ESKUTITZA	9-10
HIRUKIRA OLGETAN Umeentzako denbora-pasak	11-13
UMEENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	14-15
HODEIA ETA BIOK Ipuina	16-17
ERREPORTAJEA Gabonetan beharrean	18-19
AGENDA Herriz herriko ekitaldiak	20-21
NAGUSIENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	22-26
HIRUKALAGUNENTZAKO ZOZKETAK	27
GASTRONOMIA-GIDA Gabonetako proposamenak	28-33
ZEURE BURUARENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK	34-35
HITZA EMANDA Urteari agurra: hamabi azal, hamabi bertso	36-37
HIRUKAZALEEI AGURRA	38

URONDO
ESTANKOA

Zorionak
eta urte berri on!
Sabino Arana 67, Leioa ☎ 944 649 233



Gabonetan nork eroaten ditu opariak zure etxera?



ANTONIO CUBERO SÁNCHEZ BERANGO

Opariak Olentzerok ekartzen ditu beti etxera, Bizarzurri eta enparauak ez dira sekula etorri. Azken urteetako egoera dela eta, opari gutxiago egoten da agian, baina etortzen segitzen du ikazkinak. Nire etxeko Olentzeroak seme-alabei egiten dizkie opariak; nire seme-alaben etxean, oster, nire emazteari eta bioi ekartzen dizkigu.



AGUSTÍN HERRANZ UNCETA ALGORTA

Olentzerok ekarri izan ditu beti opariak etxera. Hala ere, aitortu beharra dago urte batzuetan besteetan baino besteago eroaten duela zakua. Kopurua gorabehera, goizean, ohetik altxatzen garenean, irekitzen ditu bakoitzak bere opariak, besteen begiradaren pean. Momentu polita izaten da hori.



ENARA IRATZAGORRIA GANCEDO ALGORTA

Etxean aita, ama eta hirurok bakarrik egoten gara Gabon-afarian. Hala, bata besteari egiten dizkiogu opariak; edo beste modu batean esanda, Olentzerok ekartzen dizkigu. Urte batzuetan opari asko egoten da, beste batzuetan ez horrenbeste... Hirurak bakarrik egonda, nahiko modu informalean ospatzen dugu.



MARIAN GALÍN CABEZA BERANGO

Olentzerok bakarrik ekartzen ditu opariak etxera. Ni txikia nintzenean Errege Magoek ekartzen zizkiguten, gure gurasoek ez zuten beste aukerarik. Denborak aurrera egin ahala, nire belaunaldikook asko aldatu gara. Seme-alabakaz Olentzero bizi izan dut; euskaldunon kulturaren pertsonaia dugu, gurea da.



JOSE TORRES MARTÍNEZ BERANGO

Nire semeari, txikitari, Errege Magoek egiten zizkieten opariak, Francok ez baitzuen uzten Olentzero existitzea, bahituta zeukan. Zorionez, egoera aldatu zen, eta diktadorea hil zenetik, nire semeari Olentzerok ekarri izan dizkio opariak. Bilobek, ordea, umeez gehien maite duten pertsonaia baino ez dute ezagutu.



AITOR ARALUZE BILBAO ALGORTA

Eurek jakin ez arren aitatzok eta amatxok ekartzen dizkiete opariak gure etxeko txikienei; Olentzero eta Errege Magoak etortzen zaizkiela pentsatzen dute oraindino. Gauza polita da umeez Gabonez ilusio horregaz gozatzea; guretzat ere irrikagarria da seme-alabak arrapaladan zelan altxatzen diren ikustea, opariak zabaltzeko asmoz.



IZASKUN ZALBIDEA FRESNEDA ALGORTA

Olentzerok bakarrik ekartzen ditu opariak gure etxera. Horrela izan da beti; inoiz ez dugu Errege Magoen Eguna ospatu. Hala ere, 14 urte dauzka gure alabak eta daborduko ez dio horrenbeste ilusiorik egiten; faltan dut alaba txikia zenean Olentzeroren opariak jasotzean pizten zitzaien irribarrea.



LEIRE MADARIETA LOZA URDULIZ

Olentzerok eta Errege Magoek ekartzen dizkidate opariak. Baina etxean betidanik eman diogu garrantzi handiagoa astoaren gainean doan ikazkinari. Tradizioa da, eta oso polita gainera. Lehengusu-lehengusinakaz abenduaren 25ean goizean opariak irekitzea ederra da. Horrez gainera, familia elkartzeko aitzakia da.



JUAN ELEJOSTE AINZ PLENTZIA

Olentzero ezagutzen dut bakarrik. Papa Noelek eta Errege Magoek ezer ere ez didate oparitzen. Txikitatik segitzen dugun ohitura da; horrela hezi gaituzte gure adineko euskaldun gazte gehienok. Tradizioa da. Bizarzurik opariak ekarriko balizkio norbaiti Euskal Herrian, arrarotzat hartuko nuke.



JUAN LUIS GEREDIAGA MENDILIBAR ALGORTA

Orain emaztea eta biok bakarrik bizi gara etxean; beraz, ez da oparirik egoten. Niri txikitari Errege Magoek ekartzen zizkidaten; semeari, ordea, Olentzerok. Gogoan daukat bera txikia zenean egin behar izaten genituenak erosketak egin eta opariak bere lekuan utzi ahal izateko. Orain goizegi jabetzen dira Olentzeroren nortasunaz.

Egun berriak eta gaba onak



OIER ARAOLAZA ARRIETA
Dantzaria


Kontsumismoarekin enpatxatuta eta erlijioarekin gogaituta, Gabonetako espiritua Zabalgarbira bidaltzeko gogoz sumatzen ditut zenbait lagun azkenaldian. Errausketa ideia ona iruditzen zait, gure bizitzan izan eta ikusi nahi ez ditugunak, trabatik kendu, sutara bota eta bertan erretzea oso ondo ezkontzen baita Eguberrietako espirituarekin. Garai batean, su handiak egiten ziren baserrietako atarietan Gabon gauean (San Joan bezperan egiten den bezala), bertan erretzen ziren urte zaharrearantz utzi nahi izaten ziren oroitzapen txarrak, eta gau onaren ondoko egun berriak suak eta urak eskaintzen duten garbiketarekin abiatzeko aukera izaten zen.

Orain Olentzeroland frankiziaren erreinuko tronuan eserita ageri den ikazkin iruzurti horrek ahaztua badu ere, sutan du habia. Garai batean, gau on eta egun berrietarako enbor eder bat sartzen zen su baxuan, besteak beste sukila edo olentzero-mokor izenekin ezagutu izan dena. Sutan mugimendu edo soinu bereziren bat gertatzen bazen, «Erne! Hor dabil Olentzero!» botatzen zieten etxeko umeei eta Olentzero izena entzute hutsarekin izututa bidaltzen zituzten ohera: «Tximiniatik behera jaisten bada eta esna harrapatzen bazaituzte igitaiarekin zintzurra moztuko dizue!».

Olentzero-enborraren muturrean begi, sudur eta ahoak marrazten zitzaizkion maiz, eta sukilak izaki beldurgarriaren espiritua gorpuztu eta sutatik bertatik erditzen ikusteko beldur izaten ziren ume eta helduak. Enborrari mutur batean aurpegia margotzea eta Olentzero izena jarrita «pertsonifikatzea» ez da soilik euskaldunoi bururatu zaigun xeblekeria. Katalunian *Tió de Nadal* esaten zaio enbor horri, eta Gabon gauean umeei makilaz egurtzen dute gizakitutako enborrak kaka eginez opariak eman ditzan. Hortik datorkio *Caçatió* izena gure Olentzeroren ahaide kataluniarrari.

Kristauen narrazio fundazionalak, hots, Genesiak dio hauts ginela eta hauts izango garela, baina Olentzeroren kasuan (eta gizakion kasuan zer esanik ez, heriotza-errituetan senideak errausteko berreskuratu dugun afizioa ikusita), uste dut zuzenago litzatekeela errauts ginela eta errauts izango garela esatea. Izan ere, Olentzero sutatik sortzen da, eta panpina baldar bihurtuta, etxez etxe, eta baserriz baserriko eske errondan, pipa, arrautza, kapoi eta ardo-botila artean egindako parrandaren ondoren, trapu zaharrez egin eta sorbalda gainean erabili duten gazteek, panpina zantarrari su eman eta jaiotzen ikusi zuen suan bertan kiskali izan dute ikazkin izugarria.

Udatik ahitzen, txikitzen, uzkuertzen joaten den eguzkiak joera aldatzen du neguko solstizioan eta handitzen, indartzen, sendotzen hasten da hortik aurrera. Ullergarria da, beraz, Xabier Leteren *Izotz ondoko eguzki neguaren parre* hartan bezala, negu gorrian eguzkiaren birjaiotza ospatzea, egun berriak jaiotzen baitira Eguberrietan. Gehiegizko erosketa, opari, jaki eta edarien betekadegogaituta bazaude, ez zaitez gehiago muturtu, askatu barruak, aldarrikatu benetako, egiazko eta betiko tradizio autentikoa: eman su Olentzerori, barreiatu, jaurti eta zabaldu haren errautsak, eta aldarrikatu sutsuki su eta garretan jaio eta hiltzen diren gaba on eta egun berriak. ◀



Neguko solstizioa, munduan festa

Jonally Puzon | Capiñahan (Filipinak)



«Amabitxi eta aitabitxiak dira oparigileak»

Filipinetako Capiñahan herri katolikoan Gabonetako ohiturarik garrantzitsuena oilar-meza da, Jonally Puzon itzubaltzetarrak azaldutakoaren arabera: «Eguberri-egunaren aurretik, bederatzi egunez egiten da ordu-beteko meza goizaldeko 03:30ean, azkena Gabon-gauean egiten da eta Eguberri-egunean beste bat egiten da, familia denentzat». Halere, eukaristiako olatak baino menu oparoak izaten dira Filipinetako Gabonetan. Ostalariak kontatu duenez, Gabon-gauan senide denak batzen dira gurasoen etxeetan, batez ere, mahaiaren bueltan; Gabonetako menuko izarra esne-txerrikumea izaten da, *pancit*-ez, arrozaz eta udaberri-biribilkiaz lagunduta. «Euskal Herrian gertatzen den legez, han ere mahaia jakiz betetzen da: arraina, haragia...». Eguberrian, berriz, seme-alaba besoetakoek amabitxiak eta aitabitxiak bisitatzen dituzte, bazkaldu eta opariak eskatzeko. «Ez dago Olentzerorik ezta Errege Magorik ere. Santa Klaus, ordea, bada, baina bere lan bakarra kalean gozokiak banatzea da, ez da etxeetara joaten», zehaztu du Puzonek. Apainketan, ohitura da argiak, zuhaitzak eta jaiotzak etxeetan, dendetan eta kaleetan ipintzea, «irailetik otsailera arte, maiteminduen egunaren ostean». Itzubaltzetarraren ustean, ohitura gehienak «kolonizatu gintuzten espainiarrarenak dira». Mindanao inguruko jendeak, berriz, ez du Gabonik ospatzen, «musulmanak direlako».

Armando Katawala | Mozambique



«Mozambiken sendiaren eguna da Eguberria»

Eguberri-eguna sendiaren eguna da Mozambiken, Armando Oscar David Katawala leioztarrak azaldu duenez. Bera bertako Lichinga herrian sortu zen. Katawalak familia katolikoa dauka, eta Jesusen jaiotza betidanik elizan ospatu izan du. Eguberrian, denak batzen dira etxe zabalenean, ohituraz aitita-amamenean. «Familia zabalak ditugu: gu sei neba-arreba gara, baina aita hainbatetan ezkondu denez, guztira 23-24 gara». Denek jakiak eroan eta prestatzen dituzte, elizara joan aurretik, «eta gura duten musulmanak ere joaten dira tenplura». Berez musulmanek ez dute Eguberria ospatzen, baina euren ere jai-eguna dute, domeka balitz legez. Elizatik bueltatutakoan, bazkaldu edo afaldu egiten da. Mahaiko ohiko platera *xima* da, arto-irinaz eta ur beroaz egindako oreka; baina ahal dutenek oilaskoa, ahatea edo estatubatuarren eraginez Gabonetako platertzat jotzen den indioiloa ere erosten dute. Opariak ere badaude, baina ez Aita Noelek edo Olentzerok emanak, senideen artean trukatuak baizik, batez ere umeengana zuzendutakoak. Apaingarriak, ordea, gutxi ikusten dira: «Gure etxean aita zuhaitza, argiak eta jaiotza ipintzen zituen, baina etxe askotan ez dira jartzen». Katawalak kontatu duenez, «globalizazioaren eraginez, azken urteotan gazte-festak ere antolatu izan dira. Gazteak arropa zuriz jantzita joaten dira, eta ez dut ulertzen zergatik».

bilakatuta

Gabonak ospakizun kristauak diren arren, urte-akabuan askotariko jaiez goza daiteke munduko leku askotan. Hainbat ospakizun aurki daitezke, herrialdez herrialde, Jesusen jaiotza edo urte berriaren etorrera ospatzeko.

Ingrid Kuschick | Münster (Alemania)



«Hilabete osoko Gabonak gozatzén ditugu»

Hilabete oso bat irauten dute Gabonek Münsterren, Alemaniako Iparaldean. Ingrid Kuschick berangoztarrak azaldu duenez, abendualdia ospatzen dute bertan. Nikolaus edo San Nikolas egunean hasten da erlijio-garai hori eta Errege-egunagaz batera amaitzen da; hori da Gabonetako zuhaitza eta jaiotza ipinita izateko denbora. Bitartean, Eguberriaren aurreko lau domekak ospatzen dituzte, sendi-topaketakaz, otorduakaz, gailera tradizionalak jaten eta Gabon-kantakaz: «Lau kandelatxo isiotzen dituzte, domeka bakoitzean bana: bat, bi, hiru eta lau... Lau kandelatxoak daudenean Gabonak hur daude, kantak dienez». Opariei dagokienez, etxe gehienetan Gabon-gauean banatzen dituzte. Weihnachtsmann-ek (Gabonetako gizona) edo Christkind-ek (Jesus umea) egiten dute etxe protestanteetan, eta Nikolaus-ek katolikoetan: «Ez dago Olentzerorik, eta Errege-egunean ez dago oparirik». Eguberrian, sendia bisitatzen da eta abenduaren 26an, lagunak. Mozkortzeko eguna ere bada San Esteban. Errege-egunean, gune katolikoetako hirunaka ume etxez etxe pasatu ohi dira Errege Magoz moztortuta, Gabon-kantak abesten eta gabonsaria eskatzen: gozoak, litxarreriak, saltxitxak, txorizoak, dirua... «Makila batean eroan ohi dute Betleemeko izarra». Gaur egun meza-laguntzaileak izaten dira, eta dirua gizarte-ekintzaren baterako izaten da. ◀

Husam Lubbadéh | Nablus (Palestina)



«Hiru erlijioaren jaiak ospatzen ditugu»

Nablusen eta Palestinan «tolerantzia da nagusi» erlijio-ohiturei dagokienez, Husam Lubbadéh algortarrak adierazi duenez. «Erlijio judutarraren, kristauaren eta musulmanaren sehaskan sortu nintzen, eta nire herrian jai denak ospatzen ditugu. Horrelakoak gara!». Gabonetako «ohitura zaharrak» erabili izan dituzte urteetan; esaterako, Errege Egunean ospatzen zuten Eguberria, juliotar egutegia erabilita. Halere, Erromako Eliza Katolikoaren eraginez, azken urteotan Mendebaldean legez ospatzen dituzte Gabon-gaua eta Eguberri-eguna. Betleemeko Natibitate eliz kristauan ospatu ohi dute jaiak. Goizaldean hasten da oilar-meza, eguzkia atera aurretik. Horren ostean garrantzitsuen umeentzako festa da: opariak eta arropa berria ematen dizkiete senideek. Familien hainbat belaunaldi batzen dira eta bazkari berezia prestatzen dute. Otordu oparoa egiteagaz batera, badago dantzarako aukera eta gogoak. Batzuetan, auzokideak ere gonbidatzen dituzte, lagun minak direnean, musulmanak badira ere. Izan ere, «nazio-jaiak» da. Garai batean Palestinako populazioaren % 30 kristaua zela gogorarazi du Lubbadéh, «sekta denetakoak». Gerrek eroan dituzte horietako asko erbestera. Koptoen, ortodoxoen, katolikoén eta protestanteen arteko harremanak liskartsuak direnez, «Leku Santuen giltzak sendi musulman bati eman zizkioten, gordetzeko». ◀

Ikasteko, ulertzeko edo irakurtzeko arazorik?

Visuality, optometria- eta ikaskuntza-zentro aurreratua

Gentzane García doktoreak zuzentzen du Visuality zentro aurreratua. Hogei urteko eskarmentua dauka neska-mutilen eta helduen arazoak ikusmen-terapiaren bidez konpontzen, behar bezala ikas dezaten.

Begi nagia, estrabismoa eta antzeko ikusmen-arazoak jorratu ez ezik, euren jardueraren %50 baino gehiago da beste kausa batzuegatik ikaskuntza-zailtasunak dituzten umeakaz lan egitea, premiei lotutako ariketa eta terapiak eginez. Visualityren lehentasuna da neska-mutilek euren gaitasunak erabat garatzea. Visualityk zentro aurreratu bana dauka Bizkaian eta Gipuzkoan. Horrez gain, ikastetxeei aurretiko azterketa-zerbitzuak, irakasleentzako prestakuntza eta ponentziak eskaintzen dizkiete.

Zeintzuk dira eskola-arazo ohikoenak eta zelan eragiten diete ikasleei? Irakurketa-idazketa, ikaskuntza-arazoak, begiaren eta eskuaren arteko koordinazioa, lateralitatea... Hala, ikasleek ulermen-, idazketa-, koordinazio- eta antzeko arazoak dituzte, eta ohikoa da eskolan autoestimua-maila txikia izatea. Ikusmen-terapiaren bidez, lau arazoetatik hiru zuzendu daitezke; harrigarria da zelan eboluzionatzen duten neska-mutilek, behin oztopoak ezabatuta.

Ikusmen-terapiak zelan laguntzen du ikasteko zailtasunak gainditzeko? Ikusmen-terapiak ikaskuntza hobetzeari ematen dio lehentasuna. Begi nagia, estrabismoa eta halako ikusmen-arazoengandik eratorritako gabeziak jorratzen ditu, baina ez soilik horiek. Lagundu egin diezaieke hainbat arrazoiengatik behar bezala ikasten ez duten ikusmen normaleko umeei. Lehenengo urratsa ikaskuntzaren berariazko ebaluazioa egitea da, arazoaren erroa identifikatzeko, eta, horretarako, hobekuntza-eremu horietara bideratutako asteroko ariketa-plana egiten da, ahalik eta azkarren; horrek oso eraginkor bilakatzen du. Gurasoen zeregina oso garrantzitsua da.

Zeintzuk dira sintoma normalenak? Umeek badute profil zehatzen bat? Oro har, adimen normala daukate edo zabala goa, baina ikasteko mugapen bat dute: lateralitate gurutzatua, begi nagia, estrabismoa... Ehuneko handi batek ez dauka ikusmen-arazorik. Sintomak askotarikoak dira, umeak oso urduriak izaten dira, askotan lotsatiak. Eskola-mailan badute hainbat zailtasun: irakurtzeko, ulermenean, matematikan, ikusmen-memorian... Ikusmenari dagokionez, gerta dakieke ondo enfokatzetik ez izatea, begi bat estaltzea, buruko minak jasatea...

Zelan eboluzionatzen dute umeek ikaskuntzan? Oro har, bilakaera nabarmena da lehenengo asteetan, garapena progre-



Ikusmen-terapiaren muina ikaskuntza hobetzea da, ikusmen-arazoak eratorritako traba izan zein ez.



Reina María Cristina 10, 2. C.
48930 Areeta (Getxo)
618 186 722
info@centrovisuality.com
www.centrovisuality.com

«Ikaste-prozesua ondo garatzen da zentzumenakaz lan egiten dugulako; umeek hobeto barneratzen dituzte trebetasunak»

siboa da eta oso modu positiboan antzematen da ikaskuntzan, irakurketan, ulermenean... Gurasoek oso hobekuntza argia ikusten dute hasieratik. Autoestimua eta ikasteko gogoia ere oso garrantzitsuak dira. Horrek eragiten du neska-mutilen garapena bizkortzea bizitzaren alderdi guztietan, baita umeen zoriontasunean ere.

Eta kirolean? Oso normala da koordinazio- eta posizionamendu-arazoren bat egotea. Trebetasun horiek garatzean, kirol-jardueretan hobetu ohi dute, baita ikaskideakaz dituzten harremanetan ere.


Zergatik ditu ikusmen-terapiak emaitza eraginkorrak beste terapia batzuek baino? Visualityn oso aurreratuta dauden antzemate-teknikak erabiltzen ditugu, hobetu beharreko arloak definitzeko, eta ariketa zehatzak egiten ditugu. Bestalde, zentzumenakaz lan egiten dugu, hau da, neska-mutilek azkar barneratzen dituzte euren baitan ikaskuntza hobetzen duten trebetasun berriak. ◀



Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi





Olentzero eta
Mari Dominguren borda
Basoko bidea, 24 Euskal Herria

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



© Garbine Ubeda

Izugarrria!

Zer arraio gertatu ote zaie munstroei? Ihesi doaz denak, korrika eta lasterka, orain alde batera, orain bestera.... Baina zerk beldurtu ote ditu?!



1 Zer ote doakie atzetik jarraika, zure ustez? Marraztuko zenuke? Oso handia ez bada (euliaren antzekoa adibidez), egin ezazu bertan, zurigunean. Oooso handia baldin bada, berriz, har ezazu bere neurriko tokia (orri handi bat, etxeko horma, kaleko pareta...) eta egin ezazu.

2 Marraztu aurretik edo ondoren, aurki itzazu irudi bion artean dauden 9 aldeak.



Berba



Goiko ugaztun hegalaria hori saguzarra da, ezta? Baina euskaldun denek ez diote horrela esaten. G letratik abiatuta, zoaz laukiz lauki, geziek agintzen duten zentzuan beti, eta saguzarra esateko beste modu bat topatuko duzu.

G ↓ ↓ ↓ ↓ ↓ ↓ ↓ ↓

F	G	i	M	K	F	L	i	P	U
H	A	S	J	O	A	U	J	A	S
A	K	U	H	F	Z	G	E	Z	U
P	F	P	E	N	i	O	i	T	O
U	J	O	Z	O	A	K	L	N	E
S	i	H	i	R	P	A	S	O	E
E	K	H	A	Z	i	S	F	H	A

Beste gautxori biren izenak ere topatuko dituzu hizki-zopan. Bila itzazu.

Sudoku


Bete itzazu lauki zuriak KUIA hitza osatzen duten hizkiekin (K, U, I eta A). Gogoan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzean.



	I		
U			
			A
	U	K	

Soslaia

Zein da zomorro itsusi honen silueta zuzena?



Labirintoa



**olgetan
euskaraz**



JOLASTEKO & KANTATZEKO TALDEAK

Urtarriletik martxora,
asteen behin ordubetez
Getxoko ikastetxeetan,
2-5 urteko ume eta familientzat

DOAN
GRATIS



Oparizaleenen bizipoza pizteko ha

Kattalin Arropa UMEENTZAKO JANTZI JASANGARRIAK



Jose Antonio Agirre plaza, 2. GORLIZ
Tel.: 646 427 618
info@kattalinarropa.com
www.kattalinarropa.com

- 1 Amantalak: % 100 Oeko-Tex kotoizkoak, 3 eredu. 2-5 urte.
- 2 Peleleak, 3-24 hilabete bitarterako. Unisex. Oeko-Tex kotoizkoak.
- 3 Sarouel-prakak, Oeko-Tex kotoizkoak. 3 hilabetetik 8 urtera.



Alupé SORMENA LANTZEKO JOSTAILU EKOLOGIKOAK



Poza Lizentziatua, 25. BILBO
Tel.: 636 367 327 / 646 215 966
info@alupe.es
www.alupe.es



- 4 Musika-arbola. 49,90 €
- 5 «Amildegia» puxtarri-zirkuitua. Espazio-kontzeptuak ulertzen laguntzen duen jolasa. 69,95 €
- 6 Arrastiko ostadarra. Jolas askea, irudimena lantzeko. 54,95 €




Arbi ERREALITATE AREAGOTUAN OINARRITUTAKO LIBURU ELKARRERAGILEAK



Iker Burguerak egindako lanak
contact@arbibook.com
www.arbibook.com



- 7 ARBI 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak. 17 € ale bakoitzeko.
- 8 ARBI bilduma. 53 €
- 9 ARBI koloreztatzeko liburua. 12 €



maika bide

Laster ibiliko dira etxez etxe Olentzero eta Mari Domingi. Dena prest zurera datozenerako? Hona hemen hainbat ideia, etxeko txikien aurpegietan irribarrea sortzeko. Goza ditzazuela!

Gobelaurre LIBURU-DENDA



Gorbeia, 6. GETXO
Tel.: 944 642 513
itxasogobelaurre@gmail.com
www.bizkaiaadigitalmarket

Ume eta helduentzako liburuak euskaraz eta gaztelaniaz, jostailuak, motxilak, opariak... Esku-lan tailerrak



Kitchen Academy SUKALDARI-ESKOLA



Errotatxu poligonoa, C12. GETXO
Tel.: 946 068 248
getxo@kitchenacademy.es
www.kitchenacademy.es



Hilabeteko ikastaroa umeentzako eskolan: 49 €

Jatekoa prestatu, dastatu, eta etxera eramateko aukera. Sukaldaritza- eta elikadura-teknikak. 4-16 urte bitartean. Asteaz ordubete (hainbat ordutegi aukeran).

Familia-tailerrak: 45 €

Helduek eta umeek elkarregaz lan egiteko aukera. Menu osoa prestatu daiteke: lehenengoa, bigarrena eta postrea. Ordu bi eta erdiko tailerrak (heldu bat eta ume bat).

Gabonetako gozogintza-tailerrak: 15 €

Ordu biko saioa. 5 urtetik aurrekoentzat. Erregetako erroka eta Gabonetako gaitak prestatzen dira.

Egonaldiak. Egun bakarra, 37 €. Astebete, 165 €

Jardunaldiak 08:00etatik 16:00etara. Sukaldaritza ikastaro trinkoa, jolasakaz uztartuta. Gosariak, gozogintza, eguneko menua prestatu... eta elkarregaz jan! Gabonetan, Aste Santuan eta udan.

Oveja creativa DISEINU GRAFIKO, ILUSTRAZIO ETA WEB-ZERBITZUAK

Tel.: 946 533 095 / 639 922 258
hola@ovejacreativa.com
www.ovejacreativa.com



10 Martin, Lea eta Ganbarako liburu magikoa.

11 Martin, Lea eta denboraren harria.



11





Iratxe Ormatza Imatz

Bakioko eskolan ikasi nuen txikitan, gero Mungiako institutuan. Handik Ingalaterrara joan nintzen, ingelesa ikasten lehenengo, eta Soziologia gero, York eta Kent-eko unibertsitateetan. Gauza berri asko ikusi eta ikasita etorri nintzen etxera, eta sormenari ekin nion. Ikasten eta beharrean eman nituen urteak, Itzulpengintza masterra ere egin nuen. Geroago, Hego Ameriketara sei hilabete egin nituen motxilagaz, eta han bizitakoagaz liburua osatu nuen: *Hegoak*. Orduan hasi nintzen helduentzako ipuinak kaleratzen: 23 ipuin ditut argitaratuta *Idatz&Mintz*-en eta *Gaztezulo*-n. Sei urteko alaba daukat; berarentzat eta zuontzat idatzi dut ipuin hau.

Eskolan, lehenengoz elkar ikusi, eta lagun egin gara Hodeia eta biok. Laster izango dira Gabonak, oparien zerrenda egingo diot Olentzerori. Hodeiak zer nahi izango ote du? Eta zer gura duzue zuei ekartzea?



Hodeia eta biok

Olentzerori euskal dantzetarako jantzia eskatu diot nik, eta lera bat, eta ipuinak, marrazki asko dituzten horietakoak. Ea ez duen ezer ahazten, zeren nik gaur etxerako lanen karpeta ahaztu dut etxean. Irakasleari ez zaio batere gustatu nik karpeta ahaztea. Hala ere, egun ederra izan da gaurkoa: lagun bat egin dut, eskolara etorri berria. Hodei daukala izena esan du irakasleak, baina niri HodeiA daukala esan dit lagunak. Irakasleari erratu dela esan diot, HodeiA dela. Baietz erantzun du irakasleak: «Egia da, bai, barkatu, Ho-de-i-a». Jolastokian harrapaketan ibili gara; inork baino azkarrago egiten du arineketan Hodeiak, eta den-denok atrapatu gaitu lehengoan!

Arratsaldean, peluxe guztiak atera ditugu geurean, eta olgetan, ilargira joan gara peluxeakaz; han ilargitarrak izan ditugu itxaroten, eta haiekaz joan gara ilargiaren atzeko aldera, eta ezkutaketan ibili gara, ederto batean. Barre asko

egin dugu ilargitarrakaz: urdinak dira, hanka txikitxoak dituzte, eta aurpegia eta begiak, berriz, oso handiak. Espazio-ontzian jaitsi behar izan dugu handik, zeren txizalarri izan gara, eta esan digute han ezin dugula txiza egin.

Espazio-ontzitik irten garenean, ilargitarrak marraztu ditugu, eta ondoan bata bestearen irudia egin du. Praka bakeroak eta jertse gorria izan ditu Hodeiak, eta ilea luze marraztu diot, nahiz eta ez duen hain luze. Hodeiari asko gustatu zaio ile luzearena. Berak bi trentza marraztu dizkit, soineko berdea, eta galtzerdi horiak tximeletakaz. Txizari eutsi ezinik joan gara galopan komunera. Pixa egiten nagoela, Hodeiak algaraka esan du: «E! Nik ere pitilina daukat; neska naiz ni ere!». Eta saltoka hasi gara, eta barreka.

Hodeiak galdetu dit ea zer eskatuko diodan Olentzerori. «Jantzi bat, lera bat, eta ipuinak», esan diot. Berak ipuinak ere eskatuko dizkio, eta dinosauroak



eta puzzleak. Gurako luke jantzi bat ere eskatu, baina beldur da ea barre egingo ote dioten. «Zergatik?», galdetu diot nik. Eta berak: «Barre egin didatelako aurreko eskolakoek eta Iruri lehengusina nagusiak ere bai, neska naizela esan diedanean edo soinekoren bat jantzi dudanean». «Oso txarto», esan diot nik. Baina berak azaldu dit triste egoten dela inoiz horregatik, eta batzuetan, lotsa ematen diola den modukoa izateak. «Lotsa?», esan diot nik, «baina oso jatorra zara, eta ezin hobeto pasatzen dugu-eta; oparien egunean lagunduko dizut nik, zure etxera joango naiz, eta inork ez digu barre egingo».

Gabonetako apaingarriak eta arbola ipini ditugu etxean, Gabon-kantak abestu eskolan; taloa jan dugu San Tomas egunean, eta irrikan egon gara Hodeia eta biok, guk ere soinekoa jantzeko, baina itxaron behar izan dugu. Azkenean, eguna heldu da! Lera bat, hiru ipuin handi, eta jantzia ekarri dizkidate. Hau poza! Soinekoa jantzita, Hodeiarenera joan naiz.

Asko gustatu zaizkit Hodeiaren dinosauroen puzzleak, dinosauro ibiltaria, eta jantzia. Oso dotore gaude biok. Iruri lehengusinak esan digu guapa-guapa dagoela Hodeia, eta ederrak direla soinekoak; berak ere nahi duela halako soineko bat. Jirabiraka, Hodeiak esan dio: «Bai, politak, ezta?». Orduan, lotsaz gorritu da Iruri, gogoratu duelako barre egin izan diola. «Bai, ezin politagoak; ez nizun inoiz barre egin behar». Eta pozaren pozez, barrez hasi dira.

Eskutik helduta kalera jaitsi gara, eta pentsatu dugu hurrengoan ilargira ere joan beharko dugula gure lagunei erakusteko jantziakaz zein ondo egiten dugun dantzaz. Eta hasi gara pentsatzen beste marrazki bat ere egin behar dugula, eta dinosauroak marraztuko ditugula, eta elurra egiten duenean, leran ibiliko garela. Gauza asko ditugu egiteko. Gora!

Batzuk familiaratean; beste batzuk



CRISTINA LANDIN SOLAUN | ALGORTA
Erizaina

«Gaixoei ahalik eta eroso sentiarazten saiatzen gara»

Gabonetako jai-egunen batean lan egitea egokitu zaizu inoiz, ezta? Aurten, zorionez, libratu egingo dut, baina aurreko urteetan bai egin behar izan dut lan, ospitaleetan ibiltzea egokitu zaidanean. Gabon Zahar gauean lan egin dut hainbatetan, baita urtarrilaren 1ean goizez eta abenduaren 25ean ere. Behin Gabon-gauan edo Gabon Zaharrean lan egitea erabakitzeke aukera eman zidaten, eta bigarrena aukeratu nuen.

Zelan bizi izan dituzu egun horiek? Hasiera batean gogorra egin zitzaidan familiarekin ezin egotea, familia asko maite dudalako eta eurekin egotea gustatzen zaidalako. Egun horietako afariak edo bazkariak prestatzen laguntzen dut beti, baina arraroa egiten da batzuetan gero etxetik alde egin behar izatea. Dena den, beti eramaten dut zerbaite gero lankideekin konpartitzeko. Gogorra da, bai, baina beste gauza on batzuk ere baditu.

Adibidez? Egun bereziak izaten dira horiek, baita pazienteentzat ere; hori dela eta, saiatzen gara ahalik eta ondoen egon daitezen, baita euren senideak ere. Askotan une gogorak izaten dira eurentzat, ospitalean egotea ez delako eroso inorentzat. Gogoratzen dut behin Gabon Zaharrean Santa Marina ospitaleko urgentzietan lan egin behar izan nuela eta 00:00ak jotzean senideak eta pazienteak elkarrekin egotea lortu genuela. Une horretan dena gelditu genuen denok batera kanpaiak telebistatik entzuteko; ez da erraza hori egitea, larrialdi zerbitzu batean gertaeren arabera jokatu behar dugulako, baina urte horretan lasai genbiltzan eta lortu egin genuen. Eguna eta gaua ahalik eta bereziena izatea saiatu ginen.

Ordainsaririk duzue mota horretako egunetan lan egiteagatik? Bai. Gabon-gauan ez dakit, baina Gabon Zaharrean bai. Normalean gauez lan egiteagatik apur bat gehiago kobratzen dugu, baita jai-egunetan ere.

Egun horiek ezberdinak izango dira bestelako egun normal bategaz alderatuta, ezta? Garaiok bereziak dira denontzat. Denok igartzen dugu norbaiten falta, eta ospitaleak eremu arrotzak dira pertsonentzat. Horregatik saiatzen gara jendea eroso sentiarazten. Lankideekin ere saiatzen gara afari berezi bat egiten, denok gustura egoteko.

Ospitaleetan zelakoak izaten dira animoak garai horietan? Normalean jendea sentiberago jartzen da. Adibidez, abenduaren 25ean psikiatrian lan egin nuen behin, eta hor bai nabaritu nuen gaixoen beharra. Egun horretan, familiekin ezin badute etorri, aztoratuago egoten dira pazienteak. Hori dela eta, ahalegin berezi bat egin genuen horiei denek hobeto sentiarazteko eta bakarrik ez daudela ikustarazteko; oso garrantzitsua da hori. ◀



NATXO URRETXUA PEREZ-IRIONDO | ALGORTA
Suhiltzailea

«Prebentzioagatik beti egon behar dugu lanean, 24 ordu egunero»

Gabonetako jai-egunen batean lan egitea egokitzen zaizun lehenengo aldia da? Bai, joan den martxoan hasi nintzen suhiltzaile, eta aurten nire lehenengo Gabonak izango dira Derioko suhiltzaile-parkean. Erreleboka egiten dugu lan, eta nire taldeari urtarrilaren 6an egokitu zaio, Errege Egunean.

Zelakoa aurreikusten duzu Errege Egun hori? Urtez urte gosaria eta bazkaria egin ohi dut familiarekin egun horretan, eta hori galduko dut. Baina, hori kenduta, egun normala izango da niretzat. Goizeko 07:45ean etorriko naiz lanera, eta hurrengo eguneko 08:15ak arte egongo naiz hemen. 24 ordu eta erdi emango ditugu lanean.

Zelan erabakitzen duzue nori egokitzen zaion lan-egun bakoitza? Txandaka egiten da; sei errelebo-talde gara, eta tokatzen zaizunean lan egin behar duzu. Nire taldeari urtarrilaren 6an lan egitea tokatu zaio, baina batzuek eguna aldatzeko proposamena egiten dute.

Ordainsaririk duzue mota horretako egunetan lan egiteagatik? Ez, soldata berdina dugu beti, soldataren barruan dago sartuta mota honetako jai-egunetan lan egiteko beharra.

Egun horiek ezberdinak izaten dira bestelako egun normal bategaz alderatuta? Ez, agian bazkariak edo afariak bereziak izaten dira, bestela normala izaten da dena. Gabon-gauan eta Gabon Zaharrean normalean bai egiten dira otordu bereziak. Gainera, Derioko parke honetan anbulantziako gidariak ere badaude, eta egun horietan elkartu ohi dira denak elkarrekin ospatzeko. Lanari dagokionez, abenduaren 24an eta urtarrilaren 6an ez da gauza berezirik egoten. Gabon Zaharrean, aldiz, suziriak egoten dira eta jendeak edanda hartzen du kotxea. Ondorioz, ohikoa izaten da istripuren bat edo suteraren bat egotea. Bai, gau horretan mugimendua egoten da.

Errege Egunean familiaren falta edukiko duzu? Normalean aitaren familiarekin gosaltzen dut eta, ondoren, amaren familiarekin bazkaldu. Ez dakit falta izango dudanez edo ez, baina egia da Gabonetan hitzordu asko daudela, bazkari eta afari mordoa, eta eurekin denekin egoteko aukera izango dut horietan. Beraz, egun batean lan egiteagatik ez dut ezer galduko. Dena den, badago txanda aldatzeko eskatzen duen jendea, horretarako arazorik ez da egoten.

Lankideen artean badago anekdotarik Gabonetan lan egiteagatik? Badago lan-taldeko kide bat, urtero-urtero, Gabon Zaharrean lan egiten duenean, 23:55ean puntu-puntu ohera joaten dena, kanpaiei itxaron barik. ◀

, lanean...

Gehienontzat beharrezkoa ez den arren, Gabonetako jai-egunetan lanera joan behar diren langileak ditugu gure artean. Besteon beharrizanak asetzeko egin behar dutena ezagutarazi guran, lau esperientzia ekarri ditugu orriotara.



JUNE DE LA MAZA PEÑA | GORLIZ
Metro Bilbaoko langilea

«Egoera zakar gehiago suerta daitezke Gabon Zahar gauean»

Gabonetako jai-egunen batean lan egitea egokitzen zaizun lehenengo aldia da? Ez, aurten bigarren aldia izango da.

Zelan bizi izan dituzu aurreko egun horiek? Aurreko Gabonetan oso ondo moldatu nintzen; nahiz eta lan egin, bazkari eta afari gehienetara heldu nintzen. Hitzorduren bat galdu nuen arren, gainontzekoetan familia zain izan nuen. Gainera, alde ona ere badauka horrek: ez nuen inolako ardurarik hartu.

Zelan aurreikusten duzu aurtengo lanaldia? Aurtengoan zorte handia izan dut, abenduaren 24an eta 25ean egunak guztiz libre izango ditudalako. Niretzat data berezienak dira horiek: 24an antzerkia egiten dugu Gorlizen, beraz pozik nago bertan egongo naizelako. Gabon Zaharra eta Urteberria arratsaldean egingo ditut, Kabiezeseke geltoki lasaian. Bertan egunerokoak egingo ditut eta, ohikoa baino jende gehiago egongo den arren, Bilboko lankideek ez bezala, nire txandetan ez dut jendearen gorakada hori asko nabaritu.

Zergatik egin behar duzue lan jai-egun horietan? Dakizuenez, metroa ez da gelditzen eta urteko egun guztietan ematen du zerbitzua. Urte osoko jai-egun askotan lan egitea egokitu zait, eta zelanbait urteko egutegi konbentzionala alde batera uzten ohitu naiz.

Ordainsaririk duzue mota horretako egunetan lan egiteagatik? Bai, Eguberri eta Urteberriko egunetan lan egiteagatik plus bat dago, baita Gabon-gau eta Gabon Zaharreko gaueko txandetan ere.

Ospakizunak direla eta, lana areagotu ohi da? Gabon Zaharreko gaua berezia da. Jendea berandu ateratzen da etxetik eta gaua eguerdira arte luzatzen dute askok. Lan gehiago egoten da, eta egoera zakar eta desatsegin gehiago suerta daitezke.

Gabon Zaharrean eta Urteberri Egunean faltan izango dituzu familiagaz egotea edo parranda egitea? Aurten Urteberriko bazkaria galduko dut bakarrik, beraz, parrandarako edo kartetan jokatzeko aukerak zabalik ditut.

Zelakoak izaten dira afariak edo bazkariak lanean? Normalean, bazkalduta edo afalduta joaten gara lanera. Beraz, etxean bakarrik eta presaka ibiltzen naiz. Dena den, eramatekotan, hamaiketakorako gozokiak eramango ditut.

Gabon Zaharrean 00:00ak jotzen dutenean zer egingo duzu? Ordu horretan familiarekin egotea espero dut aurten; hortaz, bengalak, suziariak eta petardoak prestatzen ibiliko naiz. ◀



MIKEL TOSTON AMEZAGA | ALGORTA
Medikua

«Espero dut mahatsak jan ahal izatea Gabon Zaharrean!»

Gabonetako jai-egunen batean lan egitea egokitzen zaizun lehenengo aldia da? Ez, orain dela bizpahiru urte Urte Berri Egunean egin nuen lan, baita ere. Aurten, gainera, Gabon Zaharrean egingo dut.

Zelan bizi izan dituzu aurreko egun horiek? Ba ondo, egia esan. Gabon Zaharrean familiagaz afaltzeko aukera izan nuen, baita gero lagunakaz apur batean egoteko ere. Gero, goiz joan nintzen lanera eta laneguna lasaia izan zen. Bazkari berezitzoa ekartzen digute, hala nola otarrainxkak, pernil apurra eta horrelakoak. Hala ere, etxeoagaz ez dago alderatzerik!

Eta aurten, zelan aurreikusten duzu lanaldia? Barakaldoko San Eloy ospitalean egongo naiz Gabon Zaharrean, eta ez ei da bereziki txarra lan partetik. Hala ere, mundu honetan ezinezkoa da zer gertatuko den jakitea.

Egun horiek ezberdinak dira bestelako egun normal bategaz alderatuta? Bai, egun bereziak dira, baita lankideakaz ere, ospatzeko egunak direlako. Afari berezia egiten da, jendeak jateko gauzak ekartzen ditu etxetik, eta Gabonetan «lagun ezkutua» jolasa egin ohi dugu. Pazienteakaz ere modu berezian jokatzeko dugu, ospatzen egon beharrean ospitalean egon behar dutelako. Inork ez du ospitalean egon gura.

Ospitalean lan eginda, urteko azken egunean zelakoa izaten da aldartea? Egia esanda, ez zait tokatu ikustea; baina horrelako egoeretan gogo batzuetan baxu izaten dute pazienteek eta senideek. Bereiziki eskertzen dituzte ematen dizkiegun gertutasuna eta berotasuna, eta hori polita da.

Faltan izango duzu familiagaz egotea edo parranda egitea? Afaria bera ez horrenbeste, akabuan afari piloa dago Gabonetan. Parrandari dagokionez, niretzat berezia kuadrilla guztiagaz eta herriko jendeagaz egotea da, baina parranda hobeak daude urtean zehar.

Gabon Zaharrean 00:00ak jotzen dutenean zer egingo duzu? Espero dut mahatsak jan ahal izatea! Egoeraren eta pazienteen arabera izango da hori; normalean mahatsak jateko aukera egoten da, ea zortea dugun!

Lankideen artean ba dago anekdotarik Gabonetan lan egiteagatik? Esan didatenez, 2000 urtean denak zeuden larrituta 2000 efektua zetorrelako, sistema informatikoak huts egingo zuelakoan. Kanpaiak jo eta segituan sute-alarma piztu zen, eta inoiz ez zen pizten. Segurtasuneko agertu zen, larrituta, eta ikusi zuen langile bi kristoren puru habanoak erretzen zebiltzala! ▶



URIBE KOSTA | Olentzero eta Mari Domingi

Oparia edo ikatza?

Barrika

Abenduak 23, domeka

- 18:00** Antzezlan, udaletxeko plazan.
19:00 Olentzero eta Mari Domingi ailegatuko dira.
19:30 Umeei harrera.
19:45 Gaztainak eta txokolatea denontzat.

Berango

Abenduak 24, astelehena

- 18:30** Olentzeroren kalejira kultur etxetik pilotalekura.

Erandio

Abenduak 23, domeka

- 18:00** **Erandiogoikoa.** Olentzero eta Mari Domingi, elizan. Horrez gainera, Xaiborren emanaldia iluntzeko 20:30ean.

Abenduak 24, astelehena

- 17:00** **Altzaga.** Harrera, Azoka Zaharrean. Ondoren, kalejira, Irailaren 23a plazaraino, 18:30ean; eta amaitzeko, 20:00etan, antzezipena.
17:30 **Astrabudua.** Kalejira Ignacio Aldekoa ikastetxetik Jose Andres Mendiguren plazaraino, euskal dantzak eta saskiaren zozketa. Horren ostean, umeek aukera izango dute Olentzerogaz eta Mari Domingigaz egoteko.

Getxo

Abenduak 22, zapatua

- 17:30** **Itzubaltzeta/Romo.** Ipuin-kontalaria eta pailazoak, Gobelondon.
18:00 **Neguri-Gobela.** Kalejira, Jolastoki errotondatik Gernika parkera. Horren ostean, musika, gozo-lapikoak, gaztainak eta txokolatada egingo dituzte bertan.

Abenduak 23, domeka

- 11:30** **Andra Mari.** Umeentzako jolasak, parrillada, txistulariak, trikitilariak eta fanfarrea, Malakate parkean.
17:30 **Itzubaltzeta/Romo.** Umeentzako tailerrak eta harrera Olentzerori eta Mari Domingiri, San José elizan.
18:30 **Areeta.** Pailazoak, Eskoletako plazan.
19:00 **Algorta.** Umeen bertso-saioa eta, ordubete beranduago, pailazoak San Nikolas plazan.

Abenduak 24, astelehena

- 10:30** **Areeta.** Kalejira Eskoletako plazatik Bizkaiko Zubiraino. Erakusketa, euskal dantzak eta bertsolariak izango dira.
12:00 **Algorta.** Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, Telletxe plazan.
12:00 **Itzubaltzeta/Romo.** Azoka Ibaiondo kalean, eta trikitilariak kalez kale, 13:30ean.

- 17:00** **Andra Mari.** Kalejira, kiroldegitik Malakate parkeraino. Horren ostean Olentzero erreko dute, Malakaten, 19:00etan.

- 17:00** **Itzubaltzeta/Romo.** Kalejira, Santa Eugenia plazan hasita. Hara bueltatu ostean Olentzero erreko dute, 19:00etan, eta txokolate beroaz gozatzeko aukera egongo da.

- 17:30** **Algorta.** Kalejira, Benantziotik San Nikolaseraino. Txokolate-jana, txalapartariak, bertsolariak... egongo dira.

- 18:30** **Areeta.** Kalejira, Eskoletako plazatik. Ondoren, euskal dantzak.

Gorliz

Abenduak 24, astelehena

- 12:30** Lirain abesbatza, kalez kale.
18:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Ibarretatik.

Leioa

Abenduak 23, domeka

- 18:00** **Txorierrri.** Kalejira eta harrera, Txou aretoan, 19:00etan.

Abenduak 24, astelehena

- 17:00** **Herrigunea.** Kalejira, Elexalde errostatik Kultur Leioaraino. Horren ostean, harrera, 18:30ean.
17:30 **Lamiako.** Kalejira, metro-geltokian hasita.
18:00 **San Bartolome.** Harrera, kulturgunean.

Lemoiz

Abenduak 24, astelehena

- 17:00** Olentzeroren kalejira Andrankan hasita; Armintzatik 17:30ean igaro ostean, Urizarren amaituko dute, 18:30ean.
19:00 Antzerkia eta gaztaina-dastaketa, udaletxe zaharraren ondoan.

Plentzia

Abenduak 24, astelehena

- 18:40** Kalejira, zubian hasita.
19:00 Antzezipena.

Sopela

Abenduak 24, astelehena

- 17:00** Kalejira, Larrabasterrako Urgitxieta plazatik udaletxeraino. Han, Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egingo diete. Horrez gainera, sua piztu eta urte guztian gordetako makilatxoak erreko dituzte. Baserritarrez jantzita joateko eskatu dute antolatzaileek.

Urduliz

Abenduak 24, astelehena

- 18:00** Olentzeroren ibilaldia herrian zehar.

URIBE KOSTA | Gabonetako h

Opor-e

Barrika

Abenduak 27, eguna

- 11:00** Tor magoa, Ander Deuna kultur etxetik, 5 eta 10 urte arteko umeentzat. Sarrera

Abenduak 28, barikua

- 18:00** Eskulanak, liburutegian. 5 eta 10 urteko umeentzat. Izen-ematea: libur

Berango

Abenduak 15, zapatua

- 19:00** Aretxabaleta abesbatza, antzoki

Abenduak 16, domeka

- 18:00** *Olentzeroren lagunak* ipuin-saioa, 5 eta 10 urteko umeentzat. Euskar

Abenduak 22, zapatua

- 19:00** Antzokiaren 8. urteurreneko e

Abenduak 23, domeka

- 18:00** *Pupurri, pupurri* ikuskizuna, Koroak, pailazoak, antzokian. Euskar

Abenduak 26 eta 27

- 11:00-13:00 / 17:00-20:00** Umeen

Abenduak 28, barikua

- 18:00** *Egur taupadak* txotxongiloen ikuskizuna, antzokian. Euskar

Abenduak 29, zapatua

- 19:00** *Ispiluan zehar* ballet-emanaldi bat, errusiarragaz, antzokian. Sarr

Abenduak 30, domeka

- 18:00** Euskal dantzak, Otxandategi taldearekin, antzokian. Doan.

Urtarrilak 2, eguaztena

- 18:00-21:00** Gazte Parkea, pilotalek

Urtarrilak 4, barikua

- 18:00** *Denboraren taupadak* umeentzako ikuskizuna, Patata Tropikala taldeagaz, antzokian. Sarrera, doan.

arai
arkitektura

araiarkitektura
Aitziber Olarte Bidaurreazaga

www.araiarkitektura.com
94 677 34 36 | 652 747 584
Normazalanda 3, 2 lokalak. Gorliz

KAROLA ETXEA

Arrantzaile-giroa kutuna
Kantauriko itsasleak eta arrainak

Tradizioa
Euskal-Astoko Zubeldiarren

ZOZKETA!
100%
27. orrialdea

944 600 868
Arreondo kalea, 22
Portu Zaharra - Algorta
karolaetxea@karolaetxea.net

4BIDE PINTURAK
mugarik gabeko koloreak

- Pintura eta berniz lanak
- Paper margotuak
- Zoruak

Loroño, 2 SOPELA - 94 676 29 92 - 4bidepinturak@gmail.com



ainbat ekitaldi

egunez gozatzeko hamaika aukera

Urtarrilak 5, zapatua

19:30 Errege Magoen kabalgata, kultur etxetik pilotalekura. Horren ostean, Xaibor Dja.

Urtarrilak 11, barikua

20:00 Otxandategi abestaldearen emanaldia, antzokian. Sarrera, doan.

Erandio

Abenduak 19, eguaztena

19:00 Gabon-kantak, herriko abesbatzakaz, Altzagako San Agustin elizatik abiatuta.

Abenduak 22, zapatua

19:30 Kontzertua, Mendibaiarte, San Ignacio eta Altzaga abesbatzena, San Agustin elizan. Doan.

Abenduak 22 eta 23

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeen parkea, Erandiogoikoko Gizarte Etxean. Doan.

Abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra arte

19:30 Umeentzako antzezlanak, euskaraz. Informazio gehiago HIRUKAren app-an.

Abenduak 26 eta 29

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeen parkea, Altzagako kiroldegian. Doan.

Abenduak 28, barikua

20:15 Bertso-jira Andoni Egañagaz, Imanol Uriagaz eta Kulunkan taldeagaz, Irailaren 23a plazatik.

Urtarrilak 2 eta 5

11:00-14:00 / 16:00-19:00 Umeen parkea, Astrabuduko kiroldegian. Doan.

Getxo

Abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra arte

11:00-14:00 / 17:00-21:00 Getxolandia, Areetako Xake plazan. Banakako txartela: 1,50 euro. Bost bidaiako txartela: 5 euro.

Abenduak 18 eta 19

18:15 / 19:30 Gabonetako errezeitaldiak, Areetako musika-eskolan. Doan.

Abenduak 22, zapatua

19:45 Andrés Isasi abesbatza, Mesedeetako elizan.

Abenduak 24, astelehena

17:00 Magia-saioa Oliverregaz, Getxolandian.

Urtarrilak 5, zapatua

17:30 Errege Magoak, Andra Marin eta Algortan.
19:30 Errege Magoak, Areetan eta Itzubaltzeta/Romon.

Gorliz

Abenduak 22, zapatua

20:30 Lirain eta Lirain Txiki abesbatzak, elizan. Doan.

Abenduak 28, barikua

12:00-14:30 / 17:00-19:30 Umeen parkea, pilotalekuan. Doan.

Leioa

Abenduak 22, zapatua

19:00 Musika Banda, Kultur Leioan. Sarrera: 5 euro.

Abenduak 26 eta 27

18:00 Ipuinak, Kultur Leioan. Gonbidapenagaz.

Abenduak 31, astelehena

11:30 Kanpai Txikiak, Boulevard-en.

Urtarrilaren 2tik 5era arte

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Gabonetako tailerrak eta ikuskizunak, Kandelazubietan. Doan.

Urtarrilak 5, zapatua

18:30 Errege Magoei harrera, Kultur Leioan.

Lemoiz

Abenduak 20, eguena

17:00 Kidam magoa, Urizarreko gelan. Doan.

Abenduak 21, barikua

17:30 Zintzoren ametsa antzezlan, Armintzako kultur etxean. Euskaraz. Doan.

Abenduak 28, barikua

17:00 Azken eguzkilorea antzezlan, pilotalekuan.

Plentzia

Abenduak 20, eguena

17:30 Gabonetako ipuinak, Sorgina Txirulinagaz, Goñi Portal kultur etxean. Euskaraz. Doan.

Abenduak 22, zapatua

19:00 Gabon-kantak, Plentzia Kantagunegaz, elizako plazatik abiatuta.

Abenduaren 29tik 31ra arte

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Umeen parkea, Jai Alai pilotalekuan. Doan.

Sopela

Abenduak 23, domeka

18:00 Pinotxo umeentzako antzezlan, Glu Glu taldeagaz, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 4-6 euro.

Abenduak 27, eguena

18:00 Xagusarroski umeentzako antzezlan, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoakaz, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 4-6 euro.

Abenduaren 28tik 30era arte

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Gabonetako jolas-gunea, Urko kiroldegian. Doan.

Abenduak 31, astelehena

17:00 San Silvestre lasterketa, Larrabasterrako Urgitxietatik abiatuta. Izen-ematea: triatlonsopelana.org. Prezioa: 3 euro.

Urtarrilak 1, martitzena

13:00 Urte barri umeentzako animazioa, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Doan.

Urtarrilak 5, zapatua

18:00 Errege Magoen kabalgata, Larrabasterratik abiatuta. Horren ostean, harrera egingo diete udaletxeko plazan.

Urduliz

Abenduak 22, zapatua

18:00 Katilukadak txotxongilo-ikuskizuna, kultur etxean. Euskaraz. Doan.

SUSTRAI

Pintxoetan adituak!

Terraza klimatizatu handia
Algorta erdian

Basagoiti Etorbidea, 63
48991 Getxo, Bizkaia

BASERRI
Taberna

Askotariko pintxo eta errazioak
Giro familiar eta euskalduna

Terraza klimatizatu handia
Algortako erdialdian bertan!

TELLETXE, 3 - ALGORTA

94 460 28 91

estudio.k

hirigintza • arkitektura • ingenieritza zibila

Basagoiti etor. 69 - 1.solairua ALGORTA

www.estudiok.es @Estudio_k

ner group

Aukera eder eta ugariak, etxeko a

Oso GIZONENTZAKO MODA



Algortako etorbidea, 59. ALGORTA
Tel.: 653 721 056
osoalgorta@gmail.com

- 1 **Euri-jaka**
RAINS Breaker Green
95€
- 2 **Botak**
BLUNDSTONE Rustic Brown
179€



Her EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA



Algortako etorbidea, 53. ALGORTA
Tel.: 944 040 680
heralgorta@gmail.com

- 3 **D.A.T.E SNEAKERS**
Hill High Calf
White-Red zapatilak
169€
- 4 **VILA CLOTHES** jaka
129,99€





Martitzen
eta zapatuetan
ESKAINITZA
BEREZIA



Loiola Ander Deuna, 74 · 946 764 625 · www.irunbat.net



Ostegun, bariku
eta zapatuetan
20:00etatik-23:00ak arte
pizza goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!



SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO

Uribe Kostako gazteria saltsan!!

tari ondoan

Orrialde hauetan Uribe Kostako saltokietan eros daitezkeen hainbat produktu topatuko dituzu, zure etxetik oso hurbil. Opariak bertan eskatzeko aukera izango dute Mari Domingik eta Olentzerok.

Flovar BITXITEGIA




Luis Bilbao Libano doktorea, 14. LEIOA
Tel.: 944 633 195
flovarjoyeros@hotmail.com

5 Inizial-zintzilikariak
(urrezko bitxi txikiak)
218€

6 Banas zintzilikaria
Urre horia
215€

7 Citizen erlojua
648€ * Papereko edizioan okerreko prezioa ageri da.



Ados I2 EMAKUMEEN MODA



Bidezabal, 32. GETXO
Tel.: 944 718 930
larrabideidoia@gmail.com

8 Eskumuturrekoak
45€-55€ artean

9 Euri-jaka
390€

10 Berokia
730€



ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.tailleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

TXIBERRI

EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

Eguberri on!

AITA GOTZON 4,
URDULIZ
94 676 07 15

Kantxa KIROL-MODA



Torrene, 4. ALGORTA
Tel.: 944 911 882
info@kantxa.eus
www.kantxa.eus

11 *Regatta* jaka berdea
70,50€-% 10=63,45€

12 *Salomon Gore-Tex* zapatilak
126€-% 30=88,00€

13 Artilezko *Ternua* txaketa berdea
86,95€-% 10=78,25€



Lobon BITXITEGIA



Akilino Arriola, 1, SOPELA
Tel.: 946 765 406

14 Eguzkilore-zintzilikaria, urrez eta zirkonitaz egindakoa.
175€

15 Duward erlojua sare-begi milandarragaz.
89€

16 Antonelli eskumuturrekoa.
39€




GetxoGasó

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00



OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Cien Pies ZAPATA-DENDA ETA OSAGARRIAK



Akilino Arriola, 7. SOPELA
Tel.: 946 760 894

17 Kirol-zapatilak, *Chiko*
10, 29.9€

18 *Dr. Martens* botak
220€

19 Koloretako *Victoria* kirol-zapatilak
59,90€



Izarbide Kipula SUPERMERKATU EKOLOGIKOA



Sabino Arana, 82. LEIOA
Tel.: 944 642 749/ 616 076 844
kipulaekodenda@gmail.com

20 Botilak. Hainbat prezio
18€-33€

21 Norberaren garbitasunerako
opari-saskia
19,50€

22 Perretxikogintza kit-a
21,75€





AIXERROTA BHI IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez

DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)

DBH 2: Matematika (Euskara/English)

DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)

DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez

- Zientzia modalitatea
- Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zereginak ikasteko gela

**euskaraz
bizi
nahi dut**

INFORMAZIO +
Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

Ezagutu gaitzazu!!!



**San Nikolas
IKASTOLA**

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

Zaindu ESKU-TERAPIA ZENTROA



Landa Doktorea, 4. SOPELA
Tel.: 946 026 779

- Gihar eta artikulazio arazoak.
- Disfuntzio organikoak.
- Haurdunaldiko eta jaioberrietako arazoak.
- Elikaduraren gaineko aholkuak eta osagarriak.

*Oparitu «zuretzat» osteopatia-
eta fisioterapia- kontsulta bat.*



Iñaki BITXITEGIA



Villamonte plaza, 3. ALGORTA
Tel.: 944 302 345
informacion@joyeriainaki.es
www.joyeriainaki.es

26 Diamante eta urrezko
eskumuturrekoa

27 Diamanteen eraztuna

28 Diamanteen belarritakoak



Aldai ARTISAU-TAPIZTEGIA

Basagoiti etorbidea, 32. ALGORTA
Tel.: 944 609 031

Artisau-tapiztegia: dekorazioa,
erakusketa eta tailerrak.

**Ohiak eta margoturiko
orma-paperak, metroka salgai.**



hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Urrekostarren ekarpenari esker egin du bidea HIRUKAk, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere. Egin zaitez HIRUKAlagun eta beheko produktuen zozketan parte hartu ahal izango duzu. Eta daborduko baldin bazara, lerro hauen alboko argibideei jarraitu besterik ez daukazu!

Beheko sariren bat lortzeko zozketan parte hartu gura baduzu, abenduaren 23a (domeka) baino lehenago bidali zure izena eta harremanetarako bidea administrazioa@hiruka.eus helbidera. Adierazi zein sari irabazteko parte hartuko duzun.

Errigoraren lau otzara

Nafarroako hegoaldeko produktu bikainak zuen eskura ipiniz, eskualde horretan euskara sustatzen dabilen Errigora ekimenari laguntza eman gura dio HIRUKAk. Lau otzara zozkatuko ditugu, «zuri» bi eta «beltz» bi.



Biozelairen otzara

Elikagai ekologiko ezin hobeez osatutako otzara, Gatikako Biozelairen ekimenez.



Alupéren jostailua

Bilboko Alupé jostailu-dendak utzitako Waldorf ostadarra, etxeko txikientzat.



Très Bienen tarta

Algortako Très Bien gozo-denak egindako txokolatezko pastel ederra.



Karolaren itsaskiak

Itsaski-jan dotoreaz gozatuko duzu Karola jatetxean, Algortako Portu Zaharrean.

Zure otorduetarako «mapa»: zer e

Portu Zaharra

Tel: **944 602 033**

Portu Zaharra, 35

ALGORTA



Barrengorriak kazolatxoan

OSAGAIK: Barrengorriak, berakatz-saltsa, urdaiazpikoa, salda eta ogi txigortu apur batzuk.

ESKAINZA: Betiko errezetak eta tradizioak batzen dituen sukaldea du Portu Zaharra tabernak. Izan ere, Kantauri itsasoari begira ohiko mokaduez gozatzeko leku paregabea eskaintzen du lokal horrek, Algortako Portu Zaharraren bihotz-bihotzean. Bertako eskaintza denaren artean, barrengorrien kazolatxo gomendatu digu tokiko arduradunak, «amamaren erara eginda daudelako». Azaldu digunez, egunero eska daiteke plater berezi hori, bost euroren truke. Horrez gainera, bestelako aukerak ere egongo dira aukeran Gabonetan zehar, baita gainontzeko egunetan ere: askotariko kroketak, txorizoa (sargardoan edo txakolinean), odolostea piper gorriakaz, olagarroa galiziar erara, onddoen nahaskia, urdaiazpikoa, gazta, piper txigortuak, txipiroiak saltsan eta barraskiloak, besteak beste. Horietako errazien batez goza gura duenak Algortako Portu Zaharrera hurbildu besterik ez du beharko, egunero, eguerdiko 12:00etatik 15:30era edo arrastiko 18:30etik 22:00ak bitartean. Kazolatxoez gainera, askotariko pintxoez betetako barra eskaintzen du uneoro tabernak, baita etxean egindako hainbat garagardo mota ere, den-dena ondo ezkondu ahal izateko.

Gure Etxea

Tel: **944 636 880**

Aurrezki Kutxa, 14

ITZUBALTZETA



Barraskiloak bizkaitar erara

OSAGAIK: Barraskiloak, tipula gorria, piper txorizeroa, piper berdea, porrua, okela-saltsa, oliba olioia, Ezpeletako piperrak, txorizoa eta pernila (urdaiazpikoa).

ESKAINZA: Nabarmentzekoa da Itzubaltzeta/Romoko erdigunean dagoen Gure Etxea tabernaren sukaldaritza tradizionala. Oraingoan ere, mimo handiz egindako eskaintza bat ekarri digute orriotara: bertako arduradunaren aita egiten zuen bizkaitar saltsan bustitako barraskiloak. Hamabost euroan goza daiteke plater paregabe horretaz. Era berean, egunero izaten dituzte eskaintza bereziak otorduetarako, hala nola masailak saltsan, hiru egunez tenperatura baxuan egosten utzitako hegala, erreboiloa, itsaskiak eta, zelan ez, parrilan egindako txuletak. Joan-etorrian establezimendura sartzen direnentzat mokadu eta pintxoz beteriko barra bat izaten du tabernak, baita intimitatea bilatzen dutenentzako txoko berezia ere. Arduradunak azaldu duenez, iaz zabaldu zuten zortzi lagunentzako mahai zabala duen txokoa, gura duenak afariak edo bazkariak lasaitasun osoz egiteko.

ERRESERBAK: Aldez aurretik erreserba egitea gomendatu dute, astebete lehenago. Izan ere, lekua azkar betetzen da egunotan.

GABE
ZERBITZUAK SL

676 060 811 // 691 482 697
www.gabezerbitzuak.es
@gabezerbitzuak
gabelanak@gmail.com

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak • goxokiak
Getxoko kirol portua • 944 915 321

Carrefour
express

ZUGANDIK ASKOZ HURBILAGOI

ASTELEHENETIK ZAPATURA:
9:00etatik 21:30ak arte
DOMEGA ETA JAI-EGUNETAN:
9:30etik 14:30ak arte

SABINO ARANA 15
BERANGO

ta non jan

Euskaldunok berezkoa ei dugu bapo jateko elkartzeko sena, zer esanik ez urteko akabuko egunotan. Etxetik kanpo ere bikain jan daiteke Gabonetan, eta horretarako eskaintza zabala dugu Uribe Kostan. Hona hemen gure gomendioak.

Juan Mari harategia

Tel: **944 644 125**

Mesedeetako Ama, 31

AREETA



Roastbeef-a egiteko solomoa

OSAGAIK: Txahal-solomoa.

ESKAINZA: Bazkari, afari eta oturuntzen garaiak dira Gabonak. Hala, normalean jaten ez diren jakiez gainezka egon ohi dira gure mahaiak egunotan, familia eta lagun artean horietaz gozatzeko. Urtez urteko hitzordu horiei aurre egiteko, premiazkoa izaten da lehengaiez hornitzea, eta horretarako aukera paregabea eskaintzen du Areetako Juan Mari harategiak. Urte osoan eskaintza zabala izaten dute, baina garaiotan produktu gehiago izaten dituzte aukeran. Hala, denetarik aurki daiteke bertan: foie-ak, ahuntza, txerrikumea, kapoia, indioilarra, pularda, eperra, faisai, ahatea, Alaskako izokina, Frantziako kabiarrak eta askotariko okelak. Orriotara txahal-solomoa ekarri dugu, eta modu bitara prestatzeko aukerak azaldu dizkigute arduradunek: zuzenean labean sartuta, edo xerratan zatituta eta plantxan egina, roastbeef erara. Txahala gura ez duenak behi-solomoa ere du aukeran harategian. Horrez gainera, olio bereziak, askotariko turroiak eta Italiako panettoneak ere dituzte aukeran.

ERRESERBAK: Beharrezkoa ez den arren, gordetzeko eskatzea gomendatu dute.

Gorrondona

Tel: **944 076 918**

Areatza, 54

PLENTZIA




Idi-buztaneko paella

OSAGAIK: Arroza, idi-buztanaren okela (papurtuta), piperrada, gatza. Saltsarako: ardo beltza eta barazkiak (piper berdea, azenarioa, berakatzak...).

ESKAINZA: Bost urte daroaz zabalik Gorrondona jatetxeak, Plentziako kaiaren aurrean, Gorrondona muga-muga egiten. Neguan ez dute afaririk ematen aste barruan, baina gainontzekoan oso ordutegi zabala daukate, «sukaldaria dagoen bitartean», Aitor Agirre ugazabak dioenez; «eguerdiko 12:00etan ere jan daiteke». Gorrondonako kartaren produktuetan paellak nabarmentzen dira, eta horietatik dute arrakasta handiena. Berbarako, goiko argazkian ageri den idi-buztaneko. Paella modu arruntan egin ostean, buztanaren saltsa botatzen diote ginetik. Bizpahiru lagunek jateko moduko paellak egiten dituzte, baita enkarguz ere, «bezeroak eskatzen dituen osagaiak». Kartakoetatik, idi-buztanekoaz gainera, boletus onddoakaz egindakoa da deigarriena. Besteak baino garestixeagoa da hori: 22 euro (gainontzekoak 18-19 euro bitartean saltzen dituzte). Baina badago paellaz besterik: zartaginekoa, Thate saltxitxakaz egindako platerak, fideuak...

ERRESERBAK: Ez da beharrezkoa aurrez erreserbatzea, baina kontuan hartu beharrezkoa da paella egiten hogei minutu ematen dituztela, momentuan prestatzen dute eta.



Uribarri

Tel: **944 678 562**.

Alangobarri, 4

ALGORTA



Idi-buztana «lasto» patatakaz

OSAGAIAK: Idi-buztan osoa, «lasto» eran ebakitako patatak. Saltsarako: ardo beltza eta barazkiak (piper berdea, azenarioa, berakatza...).

ESKAINITZA: Oraindik orain bete du lehenengo urtea Uribarri tabernak, Algortako Alango auzoan. Aitor Agirre da ugazaba, Plentziako Gorrondonaren bera (ikus aurreko orrialdea). Karta, izan ere, Gorrondonakoaren antzekoa da. «Alde nagusia da», azaldu digu Agirrek, «Uribarrin muskuiluak eta errazio txikiak ere eskaintzen ditugula». Hain zuzen, erraziotxoak dira euren jakirik arrakastatsuenak; jendea horiek jatera joaten da beren-beregi. Norberak betetzen du eskari-kartatxoa, tabernak eskaintzen duenetik abiatuta. Errazio ospetsuenetakoa idi-buztanekoa da, goiko argazkian ikus dezakezue-na. Okela egun oso batez ardo beltzean beratzen eduki ostean prestatzen dute, sukaldariak argitu digunez. Patata frijituak «lasto» eran prestatutakoak dira, hau da, oso-oso fin ebakitakoak. Hori bai, ez digute zehaztasunik eman gura izan saltsaren osaketaz; sukaldeko sekretutxoak! Aipatzeko moduko beste errazio batzuk plantxan egindako ganba handia eta tipulagaz nahastutako txipiroiena dira. Goizeko 07:00etatik gaueko 22:00etara arte egoten da zabalik Uribarri, baina ez egunero: eguaztenetan eta domeka arrastietan itxita egoten da. Gainerakoan, oso ordutegi malgua daukate sukaldean, nahiz eta neguan, aste barruan, ez duten jatekorik ematen, bai ordea bariku eta zapa-tuetan. Izan ere, aste-akabuetako afalorduan ibiltzen da jende gehien. Eta Plentziako Gorrondonan bezala, paellak eska daitezke etxera eroateko, bai kartakoak bai norberak aukeratutako osagaiak egindakoak (ez ahaztu ontzia bueltatu egin behar zaiela gero!). Algortako erdigunean egonagatik, tabernaren atzeko aldean terraza zabala daukate, lorategi ederragaz. Lasai-lasai egoteko txoko aparta.

Tamarises Izarra

Tel: **944 910 005**

Ereaga kaia, 4, 1

ALGORTA



Zigala salteatuak

OSAGAIAK: Parmentier patata, gatza, piper beltza, tipula, karamelua, oliba-olio es-tra, salda, arto-irina, barazkiak, perrexila.

ESKAINITZA: Tamarises Izarra jatetxeak sei urte bete ditu; denbora horretan frogatu duenez, euskal gastronomia onenaren tradizioa eta goi-mailako sukaldaritzaren berri-kuntzak uztartzen ditu. Sasoian sasoiko bertoko produktuak dasta daitezke, bista ikus-garriez gozatu bitartean. Zaporea, produktua eta tradizioa zaintzen dituen gaur eguneko sukaldaritzak da horren guztiaren emaitza. Jatetxeko buru Javier Izarra sukaldaria dugu; gaztea izan arren, ibilbide luzea dauka, hainbat gastronomia-proiektutan parte hartu du eta. Ostalaritza Eskolan ikasi ostean, Fernando Canales sukaldari ezagunagaz ibili zen hainbat egitasmotan, batez ere Euskalduna Jauregian dagoen Etxanobe jatetxean eta Bilbon ere kokatuta dagoen Akebasen. Trebakuntza handia daukaten eta lehengaia errespetatzen duten sukaldari gazteen belaunaldi berri horretako kidea da Javier Izarra. Tamarises Izarrak menu bereziak eskainiko ditu Gabonetan, eta are bereziagoak izango dira Gabon-egunekoa, Urteberri-egunekoa eta Errege-egunekoa. Kasu denetan kalita-tea bermatuta dago. Gainera, bertan gastronomiaz gozatu ez ezik, ezkontza zibilak eta edozein motako ospakizunak egin daitezke. Izan ere, 220 lagunentzako areto bat, eta itsasoari begirako terraza ireki bi dauzkate, besteak beste.

ERRESERBAK: Aste-akabuetarako komeni da aurrerapen nahikoagaz eskatzea. Erre-serbak telefonoz zein webgunean egin daitezke.

www.tamarisesizarra.com

5 URTE
EUSKARARI
PUZKA

URRIAK 25
AZAROAK 14

ERRI GORA

Gabon hauetan, **HIRUKALAGUN** guztien artean, **Errigoraren lau saski zozkatuko ditugu!**

Nafarroa hegoaldeko baratza dastatzeko eta euskara bultzatzeko egundoko aukera!

Egin zaitez **HIRUKALAGUN** eta zuk ere zozketan parte hartu!

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO:

administrazioa@hiruka.eus

944 911 337

La Estrella

Tel: 944 670 798

San Jeronimo, 18

ERANDIO



Harrian egindako txuleta

OSAGAIAK: Behiaren txuleta eta gatz.

ESKAINZA: Eltze zaharreko sukaldaritza eta, batez ere, harrian egindako txuleta dira Altzagan kokatutako La Estrella jatetxearen berezitasunak. Abeltzainen eta harakinen ondorengoak dira ostalaritza-establezimendu honetako ugazabak; oraindik ganadutegia daukate Pagasarriko mendi-magaletan, eta inguru horretakoa da sendia. Horrez gain, aitzak Ion harategia dauka San Agustin plazan; bertatik ailegatzen dira jatetxeko sukaldaria okela-zati preziatuenak. Aldi berean, euskal sukaldaritzaren berrasmatzailatzat daukate euren buruak La Estrella jatetxearen ugazabek: akabera bako pintxo-barra eta Euskal Herriko hainbat txokotako jakiak dituen karta dira ezaugarriak nagusiak. Burdinak, herdoilak eta itsasoaren usainak bat egiten dute, lagunartean sukaldaritzaz gozatzeko asmoz. Gabonetarako ez dauka eskaintza berezirik La Estrella jatetxeak: aste-lehenetik barikura eguneko menuaz gozatzeko aukera egongo da, 11,20 euroan; hamar lehenengo plater eta hamabost bigarren daude aukeran (postrea, ogia eta ardoa barne). Bariku gaueko eta zapatuko menu berezia, berriz, 24 euroan dago. Azkenik, adostutako menu itxiak ere badaude, euren webgunean ikusbide.

ERRESERBAK: Bazkaltzeko edo afaltzeko lekua, gutxienez, astebete lehenago eskatzea gomendatzen dute La Estrella jatetxekoek. Sakelako bidez, Whatsapp sare sozialetik ere hartzen dituzte erreserbak, 650 917 068 telefono zenbakian.

www.laestrellajatetxea.es

Eskarra

Tel: 946 010 947

Torreña kalea, 1

ALGORTA



Itsaski-errazio hautatuak

OSAGAIAK: Nekora egosiak, izkira egosiak eta *zamburiña*-k plantxan.

ESKAINZA: Itsaskien tenplua, lehorrean. Hori da Eskarra itsaskitegi-tabernak betetzen duen funtzioa Algortan. Bertako zerbitzariak plantxaren eta egosketa-puntuaren artisauek dira: lokal horretan nork bere gustura dasta ditzake magurioak, izkirak edo *quisquillas* eta Bretainiako Mont-Saint-Michel badiatik ekarritako muskuiluak edo *moules*. Inguruan, Eskarran soilik topa daitezke Bretainiako produktu horiek. Modu berean, berebiziko ospea hartu dute Eskarrako nekorek. Auzokideek gehien eskatzen duten produktua da Irlanda edo Eskoziako itsaski hori, plantxan prestatuta. Frantziako Arcachon portuko ostrak ere zerbitzatzen dituzte; eta langostinoak, plantxan zein egosiak; *zamburiña* galiziarak; eta datilak edo *Navajas*, aste-akabuetan. Lanpernak ere badituzte aste-akabu gehienetan, baina komeni da aurretik eskatzea, ziurtatzeko. Eskarrako zerbitzariak ardo zuria gomendatzen dute, itsaskiakaz ezkontzarik gozoena egiteko: ardo-eskaintza zabala daukatenez, aukera daiteke Verdejo, Galiziako Godello eta Albariño, bertoko txakolina... Norberak gustukoan daukana. Edozein kasutan, gomendioari jaramon egin diote bezero gehienek, orain artekoan. Hori dela eta, etengabe ardo zuri piloa darabilte tabernan. Gabonetan ohiko ordutegian egingo dute behar: 12:00etatik 15:30era eta 18:30etik 23:30era.

ERRESERBAK: Gura izanez gero, Gabonetarako angulak aurretik eska daitezke.

[Facebook.com/mariscos Eskarra](https://www.facebook.com/mariscos Eskarra) / gontziruiz@yahoo.es

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

Elikagai ekologikoak

Ekoizleak eta banatzaileak

★ Etkez etxeko zerbitzua

ZOKETA!
Aste 27. orrialdea

Borda Erreategia

Tel: **946 126 999**.

Txopoeta Etorbidea, 31

GETXO



Tomahawk-a txingarretan

OSAGAIAK: Behi zaharraren okela, zahartzapen bereziagaz, eta gatz.

ESKaintza: Borda Erretegiko ugazabak azaldu duenez, Estatu Batuetan, txingarretan, modu berezian egiten den txuleta da *Tomahawk* izenekoa: horretarako egokia izan daitekeen behi zahar bat aukeratu ostean, ontzen uzten dute, eta gero modu berezian zatitzen dute; indigena amerikarrek erabiltzen zuten aizkoraren itxura ematen diote txuletei, hezurra agerian utziz. Batavia letxugaz, tipulinaz, olioaz, sagardo-ozpinaz eta gatzaz egindako entsalada berdeagaz eta patata frijituakaz zerbitzatzen dute okela. Txingarretan egindako okelak eta arrainak dira Borda Erreteriaren berezitasuna; sasoiko produktuak izaten dituzte beti. Berbarako, tenperatura baxuan egindako arrautzagaz nahastutako onddoak dasta daitezke garai honetan; eta zezen-buztan erregosiaren kurruskaria ere bai, bere saldaren gainean. Bestalde, menu bereziak dauzkate, 38 eurotik aurrera. Borda Erretegiko ugazabak ez du uste Gabonetan eskaintza berezirik egingo duenik; agian, daborduko kartan daukaten plateretako bateri edo besteri ukitu berezia emango diote. Aukeren artean, *roastbeef*-a eskaintzeaz pentsatzen dabiltza.

ERRESERBAK: Bazkaltzeko edo afaltzeko lekua gutxienez astebete lehenago eskatzea gomendatzen du Borda Erretegiko ugazabak. Gabonak laster datoz eta zaila izaten da garai horietan mahaia hartzea.

www.asadorborda.com

Eta otordua biribiltzeko

Zurikaldai Neguri

Tel: **944 911 487**

Neguri hiribidea, 9

NEGURI



Marron glacé

OSAGAIAK: Gaztainak, azukrea eta ura.

ESKaintza: Gaztaina melatuak dira Gabonetarako Zurikaldai Neguri gozotegiak eskaintzen dituen gozoetako bat. Hainbat egun irauten duen artisau-prozesu baten bidez, gaztainen jarabea konfitatzen dituzte labean erretako gaztainak. Horrez gainera, askotariko tartak eta turroiak topa daitezke bertan, mimo handiz eta kalitate ezin hobegoko bertoko osagaiez eurek eginak, orain 200 urteko errezen arabera. Hala, Gabonetako tarta berezienak dituzte: Saint Honoré eta espina-kaduna; ohiko txokolate-tarta, mustafá eta San Markosagaz batera. Turroietan, nabarmentzekoa da Soconusco; Martina Zurikaldai arbasoak Mexikotik zekarren kakao hori prestatzeko. Beste turroi gozo batzuk dira Karakas, gorringo eta txokolatekoa, gorringo bikoitzekoa, Koñak eta Kadiz turroi edo opilak. Gabonetan nobedadeak aurkeztuko dituzte, baina momentuz sekretua gorde gura dute.

ERRESERBAK: Eguberriko eta Gabon Zaharrerako eskaerak egiteko epemugak abenduaren 21a eta 28a dira, hurrenez hurren.

2019rako Egutegi Pertsonalizatuak

Zure argazkiekin pertsonalizatu!



Villa de Pientzia, 6 · 48930 AREETA
www.cianoplan.es · 902 103 763



Eredu berria

Très Bien

Tel: 946 526 670

Basagoiti etorbidea, 49
ALGORTA



Txokolate-tarta

OSAGAIK: Txokolatea, arrautzak, gari-irina, azukrea eta olio begetala. Ganache-ko estalduran: kakao, esne-gaina, eta esne kondentsatua.

ESKAINZA: Txokolate purua da Très Bieneko txokolate-tartaren erakargarritasun nagusia; zaporez «bonba nuklearra» da, bertako sukaldariak irri artean azaldu dutenez. Dena den, hori etxeko gozogintzako sormen-txokoak eskaintzen duen aukeratariko bat baino ez da. Ainara eta Ainara euskal jatorriko lehengusina venezuelarrek sortutako edozein gozok aho-zapore ona uzten du. Gabonetan Red Velvet tarta estimatzen dute gehien Très Bieneko bezeroek, baina tentaldian berdin jausi daiteke azenario- tartagaz, gazta-tartagaz edo Atlantikoaren bestaldean Gabonetan tipikoa den urdaiazpiko ogi gazi-gozoagaz. Gainera, lokalean ardoen, kafeen eta teen karta zabala daukate.

ERRESERBAK: Gabon-gaurako eta Eguberri-egunerako eskaerak aste bat lehenago egin beharra dago, gozodendan lan esker dute eta.

Tresbien.es / Instagram.com/tresbienalgorta



Arrantzale

Tel: 661 268 745



Portubidea, 3
ARMINTZA



Nordés gin-tonica

OSAGAIK: Nordés markako gina, tonika, izotza, limoia, Albariño ardoa.

ESKAINZA: Armintzako portura doan kalean topatuko duzu Arrantzale taberna, herriko zaharrenetakoa eta ezagunenetakoa. Ezkerreko aldean, lehenengo. Hango barraren atzean dabil azken urte bietan Maria Fernandez de la Cruz, Gabonetan ohikoak diren betekadak digeritzen laguntzeko edari aproposa prestatu diguna: Nordés gin-tonica. Galizian egiten dute Nordés, oso gin lurrintsua; ia-ia kolonia ematen du, usaintzean. Hori leuntzeko, Galiziako beste produktu tipiko batez nahasten da izotza, ohiko osagaiak bota baino lehenago: Albariño ardo apur bat. Edan aurretik, ordea, zer jana ere badago Arrantzalen. Barrako pintxoez gainera, plater konbinatuak ere eskaintzen dituzte, edozein ordutan. Gehienak arrautza frijituen konbinazioak dira (*Con un par*, deitzen diote kartari), baina ospe handiena tigreek dute. Egunero 10:00etan zabaltzen dute, aste barruan bazkalostera arte (16:00ak inguru), eta aste-akabuetan gaueko ordu txikietara arte. Gaueko giro ona, da, izan ere, tabernaren ezaugarri nagusietakoa. Gura baduzu, barrara sartzen eta zeure musika ipintzen ere utziko dizute!



Zeure burua ondo gozo

Centro Mixto
Ile-apaindegia eta estetika



Nobedadeak!
Gorputz eta aurpegi-tratamenduak
Depilazioak: hotza, beroa eta laser

946 774 147 • Erribera 23 • PLENTZIA



PELUQUERIA
ILE-APAINDEGIA

AMEZTI, 7 | ALCORTA | T: 944 910 300



MARIAN
ESTILISTAK

AURRETIKO HITZORDUA: 946 766 685

AKILINO ARRIOLA 69

SOPELA

ARIMA
DANTZA
ESKOLA

GARAIKIDEA
JAZZ
URBAN DANCE
BALLETA
BARRA- LUZAKETA
GYM DANCE
ANTZERKI MUSIKALA
YOGA
...

ADIN
GUTIENTZAKO

JAR EZAZU
ARIMA
DANTZAN!

Sabino Arana 30, beheko solairua
48600. Sopela. (metrotik 4 minutual)
T/ 617 581 471
arima@arimadantzaeskola.com
www.arimadantzaeskola.com

atu, gehiegikeria barik

Besteentzat beste edo gehiago, zuretzat ere bai. Hau, hori edo hura opari egitea, luze edo labur zer gurako du(t)en edo beharko du(t)en pentsatzeaz gainera... Eta «du(t)en» baino «dudan» galdetuz gero? Aukeran...

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Askok euren buruak apaintzeko aprobetxatzen dituzte egun hauek: ilea orraztu, moldatu, garbitu, ebaki, atondu, tindatu... Denak balio du Gabon-egun hauetako afarietan edo bazkarietan lirain agertzeko. Batzuek sasoi honetan baino ez dute aukera aita-amakaz, neba-arrebakaz, seme-alabakaz, ilobakaz, lagunakaz... Txukun agertzea izan ohi da egokiena; «txukun» norberaren arabera izango delarik... Baina besteek zutaz zer pentsatzen duten alde batera utzita, erabat zilegi da gorputza eta arima alaitu ahal dizkizuten opariak zeure buruari egitea: zuk zeuk zeure burua osasuntsu, ondo, eder ikustea da garrantzitsuena.

OHITURA OSASUNGARRIAK. Egun hauetako otorduakaz lotuta, ohiko hutsegitea da bazkari edo afarira heltzea ordu askoko barauagaz. Bada, gehiegikeria saihestearen orde, erraztu egin du. Horregatik, oparoa izan daitekeen otorduren aurretik, onena da egoki gosaltzea eta, are gehiago, mokadu arina hartzea otordua baino lehen (ahal dela frutagaz) gosea eta antsietatea murrizteko. Izan ere, jaiak gozatu eta ospatzeaz gainera, mahaikideakaz eta otordu ederrakaz ondo pasatu eta atsegin har dezakegu. ◀

Jabonarte
El arte del jabón

opari bereziak, talerrak, kosmetika-naturala

Obieta 33. Erandio, 48950
94 654 92 85 // 635 71 56 04
Whatsapp
jabonarte@jabonarte.net
www.jabonarte.net

SUSAN
Ile-apaindegia

Konfiantza osoz!

Gaminiz 2, GORLIZ (Andra Mari)
surlanarraga@gmail.com
946 771 616 • 650 025 762

f t w

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25 - Getaria. T. 943.140.143 www.saiaszgetaria.com

XV. mendeko dorretxe gotikoa!

Urteari agurra: hamabi azal, hama



HIRUKA 118
Martxoak 1-8

Greba feminista ekarri zuen martxoaren 8ak, "Emakumeok, planto!" goiburupean.

Emakumea

**ARRATE
ILLARO ETXEBARRIA**
Getxo



Emakumea ez baita inoren titere, greba izan zen gure bide ta botere. Baina ohartu ote ginen alafede! askok ezin dutela greba egin ere?



HIRUKA 120
Martxoak 15-21

Idi-demak kentzeko egindako eskariaren ildotik, alde eta kontrako iritzia jaso genituen.

Animaliak

**ARKAITZ
GOMEZ AGIRRE**
Getxo



Bi ideia kontrajarri buztarkide dira: bat euskaltasunaren harriari tira, bestea akuiluko puntari begira. Nor da animaliena? Niretzat argi da.



HIRUKA 122
Apirilak 12-18

Baso autoktonoa berreskuratzeko mugimendua sortu da Bizkaian. Uribe Kostan eukalipto da nagusi.

Basoa

**NAROA
TORRALBA RODRIGUEZ**
Larrabasterra



Zuhaitzak ez, geu gara honen arazoa: negozio handia, diru eroso... Laster atzerakorik gabeko pausoa, zein da gure inguruan nahi dugun basoa?



HIRUKA 130
Ekainak 14-20

Barrika, Sopela eta Urdulizko abadeagaz berba egin genuen. Bizkaiko gazteena zen orduan.

Eliza

**DANIEL
DE MIGUEL AVECILLA**
Getxo



Eliza Txit Santua inork esan al du? Bere atea gura ei ditu zabaldu; nik behintzat bertan ez dut anitz gauza galdu, hartara tenplua ez dut behar zapaldu!



HIRUKA 131
Ekainak 12-Uztailak 4

Gai interesgarria ekarri zigun Lucrecia Masson ekintzaile feministak: gorputz-disidentzia.

Lodifobia

**PAULE
LOIZAGA LEGARRA**
Sopela



Zertan izan modelo eskaparatean? Zertan neurrien menpe bizi gizartean? Zertan sartu ezarri diguten tartean? Nahi duguna gorpuzten dugun bitartean.



HIRUKA 133
Irailak 13-19

Getxon hasi zen Espainiako Vueltaren etapa aztertu genuen, hainbat ikuspuntutatik.

Vuelta

**IÑIGO
KORTAZAR ELIAS**
Algorta



Aurton guretik pasa zitzaigun La Vuelta, batzuek ekartzeko mila txilinbuelta. Euskal Herritik baina hauxe dugu buelta: gu errespetatuz ez dadila buelta!

abi bertso

Amaitzear dagoen urteak kontu ugari ekarri ditu Uribe Kostara, eta horien isla izan dira HIRUKAren azalak. Hamabi aukeratu ditugu, ALBEko lagunek bertsoen bidez haien mamia laburbil dezaten. Hauxe uzta!



HIRUKA 123
Apirilak 19-25

Apirilean 25. urteurrena bete zuen Kanpomartxok, Erandioko euskaltzaleen jai ospetsuak.

Kanpomartxo

INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Leioa



Erandion euskarak hartu zezan txanda, eukaltzaleek bete zuten Akarlanda. Ikutuz hogeitabost urtetako langa, beste behin Kanpomartxo itzela izan da!



HIRUKA 126
Maiatzak 17-23

Legez kanpo ibiltzen dira batzuk ehizan, debekatutako epe eta lekuetan, ekologisten esanetan.

Ehiza

JOSU LANDETA EGURROLA
Getxo



Ehunka ehiztari dabil suntsitzen mendiak; ehunka hegazti dira haiek irauungiak. Legez kanpo eraginik hain triskantza handiak, ezer gutxi egiten du Foru Aldundiak.



HIRUKA 127
Maiatzak 24-30

Bizkaia Zubiak 125 urte bete ditu aurten. Munduko zubi eseki transbordadore zaharrena da.

Zubia

JONE URIA ALBIZURI
Getxo



Bizkaia Zubiak du ez-ohiko itxura: hari batez zintzilik, behean zikin ura... Hain justu gizartean dagoen modura ezker ta eskuinaren arteko lotura!



HIRUKA 137
Urriak 11-17

Kobazulo baten arrastoa agerian utzi du ikerketa batek Getxon. Emakumeen topagunea zen.

Sorginzulo

FREDI PAIA RUIZ
Algorta



Gure herriarekin memoria-zorra: Sorginzulo leizea adibide horra; ehun urtez hormaturik zein mende gogorra Ereaga ertzeko sorginen altxorra!



HIRUKA 139
Urriak 25-Azaroak 7

Hamabost urte bete ditu EHuko Bizitzaren Basoak, zientziari emandako gorpuen gordelekuak.

Bizitza

MADDALEN RUESGAS RASINES
Berango



Hemen umiltasunez gaitezkeenez mintza, lasaiago nengoke katua banintza, baina bestelakoa da gure bizitza, topatu ezazue zuenaren giltza!



HIRUKA 142
Azaroak 22-Abenduak 12

Igaro berri dugu Euskaraldia, hizkuntza-ohiturak aldatzeko egindako saio kolektibo eskerga.

Euskara

GALDER BILBAO MARTINEZ "TXAPI"
Udondo



Partida berria da ta bota dadoa, Euskaraldia irten ta arin badoa. Mugitu behar dugu tresna den ahoa, gure ametsa baita Euskara Aroa!

Zu zara giltza

Orain gutxi goiburu berria gehitu genion HIRUKA izenari: «Prensa euskaraz, pentsa euskaraz». Euskaraz pentsatzea, euskaraz bizitzea, horra erronka. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial erraldoia proposatu berri digu Euskaraldiak; bide horretan abiatzeko urrats polita egin dugu euskaldunok, baina asmo onak gauzatzea, batzuetan, gura baino gaitzagoa izaten da, eta are gaitzago erdara hain harro dabilen Uribe Kosta honetan.

Erdaratik euskararako jauzia egiteko garaian, beharbada, hedabideen kontsumoari dagokiona da euskaldunok gaintzeko daukagun oztoporik handiena. Hala ere, hamarkada bi baino gehiago da gure eskualdean euskarazko tokiko hedabideak dabiltzala eten barik, informazioaren zelai-joko zurrunbilotsuan txoko bat eurenganatz, eta kalitatean gora eginez.

Tradizio horren oinordekoa da esku artean daukagun HIRUKA hau, etapa baten azken mugarria. Itolarrian dago proiektua, eta arnasa berrituko badu, ezinbestean aldaketa handiak egin beharko ditu. Honenbestez, astean behin kaleratzeari utziko dio papereko aldizkariak; hilabetean behinekoa izango da maiztasun berria, orrialde gehiagogaz bada ere. Ordainetan, webgunea indartzeko ahalegina egingo dugu, besteak beste ikus-entzunezkoari tarte zabalagoa eskainiz eta gaurko teknologiak eskaintzen dituen aukerei etekina ateraz.

Asmo onak gauzatzeko, ordea, zu behar zaitugu bide-lagun. Zu hurbileko kontuez informatzeko, zuk euskaraz bizi eta pentsatu ahal izateko murgiltzen baikara egunero euskal prentsaren abentura ederrean. Gabon hauetan, beti legez, zure hauspoa izango da guretzat oparirik onena. Egin zaitez HIRUKA lagun, eta argitu gure bidea. ◀





BEA ILARDIA

EH Bilduren Bizkaiko ahalhun nagusigaia

Urte berri,
Bizkaia berri.

ehbildu

General Optican

DENA
%50
MERKEAGO

EHUko ikaslea edo langilea zara? Edo HIRUKAren bazkide edo HIRUKAlagun?
Bada zuretzat egindako beherapenak balia itzazu!
Sartu eta ikusi.



* Eskaintza hau ezin zaie lotu beste eskaintza edo sustapenei; EHUren Leioako campusean egindako erosketei bakarrik dagokie. Bertoko kide direna baieztatu beharko dute ikasleek eta langileek, Unibertsitatearen agiri ofizial bat aurkeztuz.



General Optica